

Ertzaintzak lehen aldiz Euskararen Erabilera Plana izango du

2015EAN abiatuko du plana Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak eta 2019ra arte iraungo du. Helburu nagusia euskal herritarrei zerbitzu elebiduna eskaintzea da. Xedea lortzeko hainbat neurri aurreikusitu ditu Segurtasun Sailak: euskalduntzeko urteko aurrekontua handiagotzea (2015ean bikoiztea nahi du); euskara ikasten arituko diren ertzainak urtean 80-100 bat izatea (gaur egun 25 dira) eta plan zehatz bat sortzea agenteak lana euskaraz egiteko gai izan daitezen.

Lehentasuna izango duten polizia unitateak eta ertzaintetxeak bi irizpideren arabera aukeratu dituzte: batetik, herritarrekin duten harreman mailaren arabera, eta bestetik, inguru soziolinguistikoaren arabera.



WWW.IREKIA.EUSKADI.NET

Gaur egun 2.652 ertzainek PL1 maila dute (Europako C1 maila) eta 171 ertzainek PL2 (Europako C1).

Segurtasun Sailak adierazi duenez, “orain dela gutxira arte eta urte askoz, Ertzaintzaren oinarrizko lehentasuna euskal biztanleen bizitza, eskubideak eta oinarrizko askatasunak zaintzea izan da. Orain, etorkizuneko Ertzaintzak hurbileko polizia-zerbitzua eskaini behar du”.

Bahea

Iñaki Petxarromanek *Berrian* esanak:

“Zer herrialde mota da hau, bertako Poliziak ez badu bertako hizkuntza erabili nahi?”, kexatu zen Jordi Pujol Kataluniako presidentea ohia 2012an. Mossoek egun batzuk lehenago iragarri zuten, murrizketen aurkako protesta gisa, gaztelania erabiliko zutela euren harremanetan, nahiz eta, kritiken ondorioz, atzera bota zuten asmo hori azkenean.

Jordi Pujol eta Artur Mas behin baino gehiagotan azaldu dira kezkatuta mossoak gaztelaniaz mintzatzen zaizkielako herritarrei.

Ertzaintzak ez du halako presiorik izan agintariengandik. Gaztelaniaz jardun dira, politikariekin harmonia osoan. Orain «hurbileko polizia» bihurtu nahi dute, eta, horretarako, «herritarrek nahi duen hizkuntzan aritzeko gai» izan behar dute agenteek. Orain arte beste lan batzuetan ibili dira, «biztanleen bizitza, eskubideak eta oinarrizko askatasunak» zaintzen, Beltran de Heredia Herrizaingo sailburuak adierazi duenez.

32 urteren ondoren ohartu da Jaurlaritzak euskarazko arreta eskaintzea ere badela Poliziaren zeregina. Zer herrialde mota da hau?”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Emigratzera behartuak?

ORAINTSU ARTE batez ere Ipar Euskal Herriko biztanleek emigratu izan dute, ezin izan dutelako beren herrian lanik egin. Hala, Iparraldeko hainbat eskualdetako gazteria izan da zigortuena; bizimodua ateratzeko esperantzarik gabe egin dute ospa Parisera edo Amerikara. Orain, krisi kapitalistaren ondorioak Hego Euskal Herrian ere nozitzen ari dira. Emigratzeko txanda iritsi zaie mugaz beste aldeko herritarrei, bereziki gazteei.

Hori ondorioztatu daiteke Espainiako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak (CES) joan den astean argitaraturiko txosten batetik. EAEko 64.000 haur pobrezian edo ongizaterik gabeko egoeran daude, biztanle guztien %23a. Pobrezia erasandako hamar lagunetik seik 35 urtetik behera dute eta “hamar pobrezia kasutik bederatzitan familia buruak ez du ikasketa kualifikaturik”. Lana duten gazteak, berriz, prekarietatean ari dira. Zer etorkizun espero dezake euskal gazteriek? Politika ekonomiko kapitalista basatietan aldaketa sakonik ez badago, gure gazte-

riaren etorkizuna pobrezian bizitzea izango da, orain arte bezala. Ondorioz, gazte ugari emigratzeko beste erremediorik ez dute izango, biziraungo badute. XX. mendean halaxe gertatu zen, askok eta askok Amerikara eta Europako beste tokietara emigratu behar izan zuten.

Administrazio publikoek, alderdiek, sindikatuek eta eragile sozialek erantzukizuna dute honetan guztitan. Larrialdi egoeraren aurrean akordio handia behar da, kalitatezko enplegua lortu eta aberastasuna hobeto banatzeko. Horrela baino ez dugu eragotziko gazteek emigratzeko. Gazterik gabe Euskal Herria ez da biziko; ez dago etorkizunik haiek gabe. Euskal herritarrok gure etxean bizi nahi dugu duintasunez. Eta solidarioak izaten segi nahi dugu beste herri batzuetatik hona etorri behar izan dutenekin ere.



Juan Mari Arregi